

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroa izan da musika-irakaskuntza digitalean eredu berritzailea ezartzen lehena

*Eredu berria, patentatutako paperik eta "orrialde" gabeko partitura digitaleko formatuko berezko teknologian oinarrituta, Pablo Sarasate Musikako Kontserbatorio Profesionalean eta Nafarroako Musikako Goiko Kontserbatorioan ezarri da*

Asteartea, 2018.eko martxoak 13

Nafarroa izan da musika era digitalean irakasteko eredu berria ezarri duen lehenengoa, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eta Blackbinderren (ereduaren oinarria den tresna interaktiboaren *start up* sortzailea) arteko lankidetzarako hitzarmenaren bitartez. Tresnaren helburua partitura lanaren paradigma aldatzea eta, hari esker, ikasleak eskaintako denbora eta lana optimizatzea.



Hasier Morrás, María Pilar Encabo, Javier Los Arcos, Julio Escauriaza eta Carlos Piñuela ikasle batekin batera aurkezpenean.

Hasier Morrás Eleaniztasuneko Zerbitzu-zuzendariaren arabera, proiektu honetan, "hezkuntza berrikuntzak eta nafarroako ekintzailtzak bat egin dute ekimen honetan, aukera paregabea da, eta merezi du bide hau aztertzeak".

Pablo Sarasate Musika Eskola Profesionalean eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, biak Nafarroako Musikako Hirian kokatuta, 2017an ekin zitzaion musika profesionalaren digitalizazio-prozesuari, haietako 4 irakaslek euren klaseetan irakasteko metodoak hobetzeko teknologia berriei onura ateratzeko aukera ikusi zutenean. Gaur Musika Hiriko Entzunaretoan aurkeztu den ekimenak, prozesu hori bultzatzen du. Gaur egun, 30 ikasle eta irakasle, musika-tresna desberdinak jotzen dituztenak, egunero dihardute lanean eredu berri honekin, zeinak ikasleak partituren lanari eskaintzen dion denbora eta lana erraztea bilatzen duen.

Tresna digital honek, musika nola jotzen den aztertzen du eta haren eritmoari egokitzen zaio intuizioari jarraiki, paperezko partituren beharrik gabe. Ondorioz, musika-piezak sortu, editatu eta egitea ahalbidetzen du, hura jotzen ari den musikariak unean bertan aldatu eta haren arabera egokitzen den arte.

Blackbinder sistemak, musika-ikerketan proiektuan eta garapen

teknologikoan oinarrituta, teknologia berrien abantailak aprobetxatzen ditu irakurketa-sistema jarraitua, "orrialde gabeko" formatuko partitura digitala lortzeko. Honela posiblea da partiturekiko lan prozesu guztia digitalki garatzea, bere estudio eta entsegutik, azterketa edo kontzertu bateko interpretaziorarte.

Tresna horrek nazioarteko proiektzioa du eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eta dagoeneko RTVEren bakarlarien laukoteen hainbat kontzertuetan eta Bartzelonako Gran Teatre del Liceu-an erabili dute.